

EUSKAL HERRIKO GATAZKA POLITIKOA AZTERTZEN

Idazki honetan *Euskal Gatazka* deiturikoari buruzko gogoe-ta batzuk aurkezten ditugu; hain zuzen ere, gure herrian hain-beste oinaz eta min sortzen duen arazo hau konpontzeko, hortaz berba egin eta eztabaidatzea baino gauza hobeagorik ez dagoela sinesten dugulako.

Hasteko, Hego Euskal Herriko azken 25 urteetako historia politikoa ulertzeko irizpide orokor batzuk aurkituko ditu irakurleak, bigarren eta hirugarren atalean *Euskal Gatazkak* zein ideologia abertzaleak eta Euskal Herriak duten etorkizuna aztertzer pasatuko garelarik. Amaitzeko, egoera hau gainditzeko, gure ustez, irtenbideak non egon daitezkeenari buruz ari-tuko gara.

1.- Hego Euskal Herriaren historia politiko modernoa ulertzeko irizpide batzuk

Franko hil ostean (1975) euskal gizartea berreraikitzearen aurrean itxaropen handiak sortu baziren ere, *Euskal Gatazka* deiturikoari emandako irtenbideek (autogobernua garatzeko oztopoz beteriko Estatutua, Nafarroako Foru Komunitatearen eta EAEren arteko banaketa administratiboa, gutxiengo etniko-en garapenerako konstituzio desegokia...) bere baitan zuten gaur eguneko egoera nahasi eta istilutsuaren hazia. Zehatzago esateko, bateraezinak ziren eta gatazka bizirik mantendu duten

nahi, estrategia eta ikuspegi kontrajarriak zeuden hasiera hasieratik:

Batzuk (PP eta PSOE-k, batik bat) Espainiaren batasuna ziurtatu eta ETA-rekin bukatzeko estrategia huts bezala ikusi zituzten EAEko Estatutua eta Nafarroako Hobekuntza Lege Organikoa. XIX. mendean Cadizko Konstituzioaren bitartez (1812) Espainiaren batasuna ziurtatu nahi izan zuten nazionalista espainiarren ondorengo diren 1978ko Konstituzioaren inspiratzaileek tresna politiko hauek biak beste bideek huts egin zutenean euskaldunak era baketsuan Estatu espainiarrean mantentzeko estrategia bezala onartu zituzten.

Estatutua eta Hobekuntza Legea euskal identitatea garatzeko abiapuntu egokiak izan zitezkeela esaten zutenak ditugu bigarrenik (nagusiki PNV eta EE). Hego Euskal Herriaren banaketa administratiboa onartu behar bazen ere, Estatutua eta Hobekuntza Lege Organikoa euskal identitatea eta erabaki gaitasuna berreskuratzeko bide egokiak izan zitezkeela pentsatzen zuten. Hauen artean ez ziren gutxi izan (PNV-koak, eta, ondoren EA-koak) EAEko Estatutua autogobernua aurrera egiteko lehen pauso garrantzitsu bezala ikusi zutenak. Bere agindu gehigarria oinarritzat hartuz (*“Estatutu honetan finkatutako erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari herri gisa historian barrena dagokiokeen eskubideak uko egiten zaienik, ordenamendu juridikoak erabakitzeko duenaren arabera gaurkotu daitezkeelarik”*), Estatutuaren bidea autogobernurako bide egokia zela azpimarratzen zuten.

Hirugarrenik, ENAM-en ikuspuntua garatzen joan zen; hain zuzen ere, Hego Euskal Herriaren banaketa eta horren eragile diren Estatutua eta Hobekuntza Legea hasieratik agortutako iturriak zirela zioena. ETA-ren Alternatiba Demokratikoan adierazten zen legez, *“España-n abiapuntu eta helburu duen inposatutako Autonomien Estatuaren aldeko apostua egin zuten indar politikoek ‘espainiar demokraziaren’ faktura ordainarazi diote urte luze hauetan Euskal Herriari: zatiketa instituzio-*

nala, euskararen itotzea, akulturazioa, eraipen industriala....". Egoera honetan, inozokeri hutsa da, hauen ustez, Estatutuari inolako onurarik ikustea.

Hego Euskal Herriko erakundeek garapenaren aurrean sortu ziren hiru ikuspegi nagusi hauek bitan eraldatu ziren Lizarra-Garazi bake akordioa sinatu zenean (1998). Nazionalista espainiarren zentralismoaren aldeko jarrerak eta abertzale euskaldunen autogobernu joerak inoiz baino argiago agertu ziren.

Gehiegi sinplifikatzen ari garela onartuta ere, Lizarra-Garazik Euskal Herriko indar politikoek berrantolaketa eta, ondorioz, Foruzale eta Liberalen arteko kalapita zaharra eguneratu eta berrindartu du. Abertzale euskaldunak Euskal Herriak XIX. mendean galdu zituen Foruak eta autogobernua berreskuratzearen alde agertu dira (eskumen politikoak, euskaldunen zerga-arau berezia...). Liberal edo abertzale espainiarrek, aldiz, Euskal Herria Espainian integratzearen aldeko jarrera agertzen dute. PP-ek Estatuko gobernuan (1996) sartu zenetik, gainera, indartu egin da azken joera hau.

Berba gutxitan esateko, XXI. mendean sartzera goazen honetan, XIX. mendean bezala gaudela ohartzen gara. Mundua globalizatzen dago, baina herrigintzaren inguruko eztabaida eta liskarren izaera gutxi aldatu da Euskal Herrian.

2.- Euskal gatazka politikoa mundu globalizatuan

Euskal gatazkak mundu globalizatuan zer-nolako etorkizuna duen galdetzen badugu, foruzale eta liberalen edo, hobeki esanda, nazionalista espainiarren eta abertzale euskaldunen arteko banaketa eta liskarrek aurrerantzean ere indartsu jarraituko dutela erantzun beharrean aurkitzen gara. Hori pentsatzera garamatzaten arrazoi ugari aurkitzen ditugu, han eta hemen:

Alde batetik, foruzale edo abertzale euskaldunen eta liberalen edo nazionalista espainiarren arteko borroken azpian bizi-modu eta ideologia desberdinen arteko gatazka nabari da.

Foruzale edo abertzale euskaldunak, asko eta asko euskara eta euskal kultura bizirik dirauten herri txikietakoak, autogobernuaren babesle agertzen dira. Liberalak, ia gehienak hiritarrak (kontuan izan 1999ko hauteskunde orokorretan PP alderdiak irabazi zuela Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan), estatu-zentralistaren eta Euskal Herrian Estatu espainiarrean jarraitzearen alde daude. Zentzu honetan, Karlistadek ondorengotza eskubideei buruzko eztabaiden azpian arazo ideologikoak eta bizimodu ezberdinen arteko eztabaidak ezkutatu zituzten bezala, gaur eguneko gatazka politikoak ere oinarri ideologikoa du, eta Euskal Herriarentzat nahi den etorkizun kultural eta politikoarekin eta gatazkan parte-hartzen dutenen bizitza-estiloekin zerikusia du. Euskal gatazka mundu ikuskera, bizimodu eta egitasmo kultural desberdinen arteko eztabaida da oinarrian, eta ez da konponduko guztien arteko akordio sendoa lortzen ez den bitartean.

Bestalde, azpimarratzekoa da alderdi abertzaleen arteko harreman istilutsuek gatazka areagotzen dutela. EA-PNV eta Batasunaren arteko ikusi ezinek, batez ere indarkeriak sortzen dituen narriadurengatik, elkarbizitza oztopatu eta gatazka gainditzeko beharrezkoa den auzolana zailtzen dute.

Buruhauste hauek gutxi balira, Ipar Euskal Herrian departamenduaren inguruan gertatzen ari denak gatazka sendotu egingo duela begitantzen zaigu. Hau da, Iparraldeko 3 herrialdeentzako departamendua sortzeko Estatua frantziarrak jartzen dituen oztopoak eta Iparraldeko biztanleen nahi eta eskaera politikoei entzungor egiteak, epe ertainean euskal gatazka gogortuko egin daitekeela erakusten dute.

Hala ere, abertzale espainiarren eta euskaldunen arteko lis-karrek konponbide argirik gabe jarraituko dutela erakusten digun adierazle garrantzitsuena da, itxura guztien arabera, aurretik ere Estatu espainiar zein frantziarrak euskaldunon autogobernua esan nahi duen edozeren garapena oztopatuko dutela. Azken urteetako historia eta gaur egun Espainia eta

Frantziako gobernuek Euskal Herriarekiko duten jarrera ikusita (LOAPA, hitzartutako transferentziak urte luzez eman gabe egotea, Iparraldeko hiru herrialdeentzako departamendua ukatzea, euskal kulturaren eta euskararen aurkako neurri bortitzak...), ez da azterketa sakonegirik egin behar epe labur eta ertainean Euskal Herriaren autogobernuak orain arteko bide geldotik jarraituko duela pentsatu, eta gatazkak gogor jarraituko duela ondorioztatzeko.

3.- Ideologia abertzalea eta euskaldunak XXI. mendean

Asko dira esaten dutenak Estatu espainiar eta Frantziarraren aurkako borroka honetan ideologia abertzalea eta, oro har, euskaldunon herri nortasun ahultzen eta desagertzen joango direla. Mundializazioarekin homogeneotasun kulturala eta estatutik gabeko herrialdeen eskumenen ahultzea datorrenez, era honetako herrialdeetako nazionalismoa zein kultura bera ere ahultzen eta hiltzen joango dira.

Ala ere, gure ikuspuntua da abertzaleen ideologia eta, oro har, Euskal Herria XXI. mendean ere bizirik iraungo dutela. Arrazoi asko dago horrela pentsatzeko:

Lehenengo eta behin, ez dirudi XIX. mendeko Foruzaleen tradiziotik datorren abertzaleen jarrera ideologiko eta politikoa desagertuko denik. Azken 25 urteetako hauteskundeetan ikusitakoen arabera, eta gora beherekin bada ere, boto abertzaleak eta Euskal Herriaren autogobernuaren aldeko borrokak bizirik iraungo dute aurrerantzean. Nazionalista espainiarren ideologia eta nortasun politiko eta kulturala azken urteotan asko indartu dela onartu behar bada ere, abertzale euskaldunen ikuspegiak sustrai sendoak ditu.

Bigarrenik, teknologia berriek herrialde txikien alde egingo dutela pentsatu behar da. Komunikabideen garapenak herri nortasuna gordetzen eta garatzen lagunduko du. Hainbat autorek globalizazioarekin datorkigun zibilizazio neoliberalaren ondorioz demokraziak ahuldu, gizakien zein herrialdeen aska-

tasuna galdu, pentsamendu bakarra hedatu eta multinazionalen agintea gailenduko dela azpimarratu badute ere, gure ustez, estaturik gabeko herrialdeei orain arte ustiatu ez dituzten bide eta aukerak agertzen zaizkie. Bereziki ikus-entzunezko komunikabideek garapen politiko eta kulturalerako abagune egokia eskaintzen dizkie; hain zuzen ere, baliabide gutxirekin nahi duten informazio mota euren muga geografiko eta administratibotik kanpo zabaltzeko aukera gehiago izango dutelako, eta horrek munduan egoteko aukera emango dielako.

Hirugarrenik, aipatzekoa da, etorkizunean, gure ustez, Euskal Herriak batasun maila handiagoa izango duela. Gaur egun Iparraldean Euskal Departamendua sortzeko arazo eta oztopo izugarriak daudela uka ezina bada ere, oso kontuan izan behar da Estatu frantziarrak autonomia maila handiagoa onartu diola Korsikari; eta horrek etorkizunean Ipar Euskal Herriko 3 herrialdeek ere Euskal Departamendua lortuko dutenaren esperantza piztu duela. Areago, Euskal Departamenduaren sorrerak Hegoaldearen eta Iparraldearen artean harremanak sendotzeko balioko duela pentsatzen dugu.

Honekin batera, argi dago estaturik gabeko herrialdeen inguruan gauzak mugitzen ari direla Europa zaharrean, eta horrek ondorio baikorrak izango dituela Euskal Herriarentzat. Erabakiak era autonomoan hartzeko gero eta aukera gehiago agertzen ari zaizkie estaturik gabeko herrialdeei; edo, berdin dena, legebiltzar eta administrazio autonomo gehiago sortzen ari dira, han eta hemen (Eskozia, Gales, Korsika...). Nahiz eta estatu zentralistetan bizi eta mendeetan euren kulturak baztertuak izan, estaturik gabeko Europako zenbait herri nortasuna mantendu, garatu eta, azken urteetan, politikoki sendotzeko gai izan da.

Sinplifikazio handia egiten ari garela onartuta ere, betiko legebiltzar zentralisten alboan mota biko legebiltzarrak agertzen joan dira European barrena:

Batetik, Eskozia, Katalunia edo EAE-n garatu diren bezalako legebiltzarrak ditugu; nahiz eta soberania estatuen menpe

egon, zergak bildu eta hezkuntza, osasuna edo etxebizitza bezalako gai garrantzitsuetan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenak. Eskumen mailari dagokionez lehen mailako legebiltzar autonomoak dira.

Bestetik, ia sinbolikoak diren legebiltzarrak daude. Suedia, Norvegia eta Finlandiako Samien legebiltzarrak sartuko genituzke bigarren multzo honetan. Kultura, hizkuntza eta eurekin zuzenean zerikusia duten gai oso zehatzetatik kanpo (samien kasuan lur, baso, belardi eta uren erabilerarekin loturiko gaiak), eskumen maila txikia dutenak. Erabiltzen dituzten aurrekontuen eta daukaten boterearen arabera, bigarren mailako legebiltzar autonomoak bezala sailkatu ditzakegu.

Gaur egun indarrean dauden joera politiko-administratiboak aztertzen baditugu, legebiltzar autonomo gehiago agertzeaz gain, bigarren mailako legebiltzarrak erabaki gaitasun eta eskumen gehiago hartzen doazela ikusten dugu. Haboro, *domino efektua* gertatuko da estaturik gabeko herrialdeen artean. Hau da, lehen mailako legebiltzarrak dituzten herrialdeek administrazio autonomorik ez duten edo bigarren mailako legebiltzarrak dituzten herrialdeengan erasango dute, hauen subiranotasun eskakizunak ugarituz. Aipatzekoa da, esaterako, Errusiako samiak (2.000 inguru) legebiltzar autonomo bat aldarrikatzen dabiltzala aspaldian, Finlandia, Suedia eta Norvegiako samiak era horretako erakundeak dituztela ikusita.

Hitz gutxitan esateko, era honetako legebiltzarren artean harreman gehiago egongo da, eta honek esan nahi du estaturik gabeko herrialdeek estatuengan zein nazioarteko erakundeengan (Europako Batasuna eta Nazio batuen Erakundearengan, adibidez) eragiteko gaitasun handiagoa izango dutela. Ekonomiaren mundializazioak eta teknologia berriek gaurko estatu-nazioen ahultzea eta egitura politiko hurbilagoen indartzea ekarriko du.

Gauzak horrela, denborarekin Europako Batasunak orain arte eman dion baino garrantzi gehiago eman beharko dio

erregioen edo estaturik gabeko herrialdeen auziari. Eskualdeen Batzordeak aholkularitza lanak baino ardura handiagoak izan beharko ditu, eta estaturik gabeko herrialdeei axola zaizkien gaietan ordezkaritza handiagoa eta konpetentzia gehiago onartu beharko dizkie. Gerta ala gerta, Europaren eraikuntzan estatuak ez diren egiturek parte-hartze handiagoa izango dute.

4.- Gatazka gainditzen

Ideologia abertzalea zein euskaldunon herri nortasuna gorde eta Euskal Herrian bizi dugun egoera istilutsua gainditzeko, orain artekoak baino irtenbide sortzaileagoak eta aurrerakoiagoak aurkitu behar ditugu. Eta horrek esan nahi du, gaur egun Euskal Herrian hedaturik dauden alderdi politikoentzat zein ETA berarentzat ere sakrosainduak diren jarrera eta ikuspegi asko eta asko aldatu, edo behintzat birplantea, egin beharko direla. Autogobernuaren aldeko eskaeran aro berri bati ekin behar zaio, eta horretarako bide horren alde lan egiteko prest daudenen arteko adostasun sozial eta politiko zabala lortu beharko da. Are gehiago, aro berri hau lortzen ez bada, euskal nazionalismoaren noraeza areagotu, jendea erakartzeko gaitasuna ahuldu eta autogobernuarekin aurrera egiteko aukera galduko da. Eta txarragoa dena, gatazka bizirik mantendu duten nahi, estrategia eta ikuspuntuak bere horretan jarraituko dute XXII. mendean ere.

Bada, eta Lizarra-Garazi akordioan adierazten den bezala, inplikaturik dauden talde politiko guztiek *Euskal Gatazkaren* izaera politikoa dela eta, hortaz, haren konponketak ere politikoa izan behar duela onartu beharko dute. Enfrentamenduak elkarlanari utzi beharko dio tokia, tradizio politiko guztiak ulertu eta errespetatuko dituen konponbidea eratu eta bultzatuz. Elkarrizketa eskusibistak egitearen edo politika isolatzaileak aplikatzearen aldekoen erresistentzia murrizten lagunduko du jarrera horrek. Elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorpuztu daiteke konponketa politikoa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoaren esku hartzearekin.

Era berean, *berdintasun printzipioa partekatze*ko prozesua lelopean Elkarrik bultzatu duen Bake Konferentziak lan garrantzitsua egin dezake elkarriketaren eta distentsioaren alde. Berdintasunaren inguruan planteatzen duen hitzarmena (*bizi baldintzetan berdintasuna, pertsona guztien oinarritzko giza eskubideak babesteko; baldintza politikoetan berdintasuna, ideia eta nortasun guztiak askatasun osoz ordezkatzeko eta baldintza demokratikoetan berdintasuna, egitasmo politiko guztiak joko-arau berberen arabera gauzatzeko planteatzen duen*) elkarlana bultzatzeko lehen abiapuntua izan daiteke. Izan ere, *Berdintasuna oinarritzko printzipio bat da eta ados jartzeko bidea eman diezaguke gaur egungo blokeotik irten ahal izateko.*

Pauso hauez gain, nazioarte mailan gatazka agertzeko eta azaltzeko estrategia zehatzak jarri behar dira martxan. Izan ere, elkarriketa eta distentsiozko giroa sortzeko nazioarte mailako presioek paper garrantzitsua joka dezakete. Besteak beste, oso ona litzake Europako Gobernuak, Europako Batasuneko erakundeak zein Estatu Batuak ere, hala edo hola, gatazkan inplikatzeari. Elkarriren Bake Konferentziaren Ohorezko Batzordean 7 Bakearen Nobel Sari egotea (John Hume, José Saramago, José Ramos-Horta, Rigoberta Menchú, Dalai Lama, Adolfo Pérez Esquivel eta Mariead Maguire) aurrerapauso garrantzitsua izan daiteke zentzu honetan.

Bestalde, eta nazioarte mailako presioa ziurtatzeko, aukera egokia izan daiteke European sortzen dauden eskualde autonomekin (Korsika, Eskozia, Alemaniako landerrak...) sare bat osatzea, eta estaturik gabeko herrialdeen interesak defendatzen dituztenen alderdi politikoaren artean Europa osorako alderdi politiko handi bat bultzatzea. Izan ere, egitura politiko handiagoek gauzak lortu eta presioa egiteko aukera gehiago emango dutela pentsatzen dugu. Ia gehiegi luzatu gabe zerbait lortzen den.

Patxi Juaristi